



Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen (IPSEB) jarduera 2025eko ekitaldian

Sarrera

2016ko irailaren 16an, [Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordeari buruzko irailaren 13ko 128/2016 Dekretua](#) argitaratu zen. Dekretu horren helburu bakarra da herritarrek informazio publikora iristearen arloan jardun-eremu bateko EAEko administrazio publikoek ukatzeko emandako berariazko nahiz ustezko ebazpen ororen aurrean jartzen diren erreklamazioak aztertzea, hautazko izaeraz eta administrazioarekiko auzien ordenara iritsi aurretik.

Aurreko txostenetan jada esan dugun legez, nabarmendu behar da kontrol-organo hori, Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordea, eginkizun oso mugatu batekin sortu zela, aldi baterako aurreikusten baitzen. Behin-behinekotasun hori **Gardentasunari buruzko EAEko Legea onartzen denean eta Gardena - Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren sortzen denean ebatziko da, azken horrek nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa izango baitu**, bere eginkizunak independentziaz betetzeko.


2025eko ekitaldian, batzordea erabat aldatu da sortu zenetik, eta zenbait aldaketa partzial ere egin dira, batzordekideak berritzeko 5 prozesu egin baitira 2025eko bigarren erdian. Hori guztia, azken lauhilekoko ezohiko mugimenduekin batera, erronka bat izan da batzordearen jarduerarako.

Horregatik, eta jarraian azaldu diren beste arrazoi batzuk kontuan hartuta, 2025eko azken lauhilekoa barne hartuta eta kanpoan utzita aipatuko dira batzordearen jarduerari buruzko urteko datuak memoria honetan.

Erreklamazioak, erreklamazioa jarri zaion entitate motaren eta emandako ebazpen motaren arabera

2025. urtean, 434 erreklamazio jaso ziren. Jasotako 434 erreklamazio horietatik, 2025eko irailetik abendura bitartean jaso ziren 294, eta horrek esan nahi du 2024ko ekitaldi osoan jaso ziren espedienteak halako bi jaso zirela lau hilabeteko epean. Erreklamazioen goieneko maila hori, gainera, bat dator batzordekideak etengabe aldatu ziren aldiarekin. Hori dela eta, 2025. urtean 149 ebazpen eman ziren guztira, hau da, aurreko ekitaldietan ebatzitako espediente kopuruari jarraitzen zaio.

Jarraian adierazi den taulan, jasotako erreklamazioen bilakaera ikusten da. Bertan, batzordea 2016an sortu zenetik 2025era arte izan den hazkundera islatzen da (salbuespena direla 2019. eta 2023. urteak).



URTEA	ERREKLAMAZIOAK
2016	2
2017	33
2018	100
2019	84
2020	102
2021	129
2022	153
2023	132
2024	158
2025	434

Grafikoan ikus daitekeenez, orain arte ez da aldaketa handirik egon; hala ere, 2025eko ekitaldi honetan, goieneko jarduera-maila egon da, orain arte ez bezala, **% 274 hazi baita aurreko ekitaldiarekin alderatuta.**

2025eko irailetik abendura arte jasotako **294 erreklamazioei dagokienez**, nabarmendu behar da **subjektu espezifiko batzuek egin dituztela 195:**

- 106 erreklamazio pertsona fisiko bakar batek egin zituen 2025/09/22an
- 89 erreklamazio pertsona juridiko batek egin zituen 2025/10/01 eta 2025/12/22 artean

Beheko koadroan, zehatz azaldu dira ebatzi diren erreklamazioen xehetasunak, eta erreklamazio horiek zer erakunderen kontra aurkeztu ziren ere jasotzen da.

Hiru datu-bloke aurkezten dira: 2024koak eta 2025ekoak —aurreko ekitaldiko garapenarekin kontrastatzeko— eta, azken lerroan, batzordearen ibilbide osoan zehar ebatzi diren espedienteen batura —aurreko bi urteak baloratzeko erreferentzia gisa—.

URTEA	ERREKLAMAZIOEN EBAZPENAK	UDALEK INFORMAZIOA UKATU IZANAREN AURKA	%	FORU- ALDUNDIEK INFORMAZIOA UKATU IZANAREN AURKA	%	EAEko SEKTORE PUBLIKO AK UKATU IZANAREN AURKA	%	BESTE ENTITATE BATZUEK UKATU IZANAREN AURKA	
2024	Baietsiak	71				26			
	Ezetsiak	7				8			
	Ez onartuak	20		4		12			
	Atzera egiteak	9							
	Artxibatuak								
	Bideratuak								
2024, GUZTIRA	157	107	% 68,15	4	% 2,55	46	% 29,30	0	% 0,00
2025	Baietsiak	60				25			
	Ezetsiak	7				12			
	Ez onartuak	19		3		15		1	
	Atzera egiteak	7							
	Artxibatuak								
	Bideratuak								
2025, GUZTIRA	149	93	% 62,42	3	% 2,01	52	% 34,90	1	% 0,67
2016-2025 BATURA	1041	592	% 56,87	26	% 2,50	413	% 39,67	10	% 0,96

Ikus daitekeenez, 2025ean, **erreklamazioen % 62,42 sortu dira EAEko udalek informazio publikora iristea ukatu dutelako edo eskatzailea ez dagoelako ados emandako informazioarekin; erreklamazioen % 34,90 EAEko sektore publikoak informazio publikora iristea ukatu dutelako edo eskatzailea ez dagoelako ados emandako informazioarekin, eta % 1 baino gutxiago beste entitate mota batzuek informazio publikora iristea ukatu dutelako edo eskatzailea ez dagoelako ados emandako informazioarekin. Aurreko ekitaldikoaren oso antzekoak dira.**

Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordean jasotako erreklamazioen arrazoiak

Azpimarratzekoa da, 2016-2025 aldian, **erreklamazio gehienen kausa izan dela egindako eskaerak ez dutela erantzunik jaso, hau da, administrazio-isiltasuna. Izan**

ere, 20.4 artikulua aplikatuz, erantzuteko gehieneko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertu behar da.

2025ean, erreklamazioen % 78,57 (341) erantzunik jaso ez delako ipini dira.

URTEA	GUZTIRA JASOTAKO ERREKLAMAZIOEN KOPURUA	ADMINISTRAZIO-ISILTASUNAGATIK JASOTAKO ERREKLAMAZIOEN KOPURUA	%
2024	158	93	% 59
2025	434	341	% 79
2016-2025 batura	1327	912	% 69

Hurrengo taulan, isiltasunagatik jasotako erreklamazioen kopurua (341) xehatzen da, zein administrazioen aurka ipini diren zehaztuta. Nabarmentzekoa da **administrazio-isiltasunaren ondoriozko 341 erreklamazioetatik** gehienak (% 86,22) **toki-entitateei dagozkienak direla.**

UDALEN ADMINISTRAZIO-ISILTASUNA	%	FORU-ALDUNDIEN ADMINISTRAZIO-ISILTASUNA	%	ESTATUKO ADMINISTRAZIOAREN / BESTE BATZUEN ADMINISTRAZIO-ISILTASUNA	%	EAEko SEKTORE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO-ISILTASUNA	%
74	% 79,57	1	% 1,08	0	% 0,00	18	% 19,35
294	% 86,22	13	% 3,81	1	% 0,29	33	% 9,68
689	% 75,55	25	% 2,74	4	% 0,44	194	% 21,27

IPSEBen aurkeztutako erreklamazioen ebazpenen motak

Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak emandako ebazpenen motari dagokionez, nabarmentzekoa da zenbakiek aurreko urtekoaren oso antzeko egoera islatzen dutela; izan ere, 2016-2025 aldi osoan % 59,6 baietsi ziren, eta **2025ean, 149tik 85 baietsi zirenez, % 57,05.**

Ezetsi direnen artean (% 12,75), hauek izaten dira arrazoiak kasu askotan: eskatutako informazioa ez edukitzea, eskatu zaion entitatearen eskumenekoa ez delako edo dagoena emanda dagoelako, informazioa iristeko eskubidea dakarren prozedura bat ez izatea, edo baldintza formalak ez betetzea.

Onartu ez direnei dagokienez, 36 dira guztira (% 25,05), eta % 4,70etan atzera egin da.

Aipatu behar da, 2025eko azken lauhilekoan jasotako erreklamazioei dagokienez aurretik aurkeztutako egoera kontuan hartuta, ehuneko horiek 2026an aldatzea aurreikusten dela. Aurten bezala, disrupzio espezifikoak duten subjektuak barne hartzen dituzten eta hartzen ez dituzten agertokiak aipatuz baloratuko da.

ERREKLAMAZIOEN EBAZPENAK	2025	%	UDALEK UKATU IZANAREN AURKA	FORU-ALDUNDIEK UKATU IZANAREN AURKA	EAEko SEKTORE PUBLIKOAK UKATU IZANAREN AURKA	BESTE ENTITATE BATZUEK UKATU IZANAREN AURKA	2016-2025, GUZTIRA	%
Baietsiak	85	% 57,05	378	1	236	6	621	% 59.60
Ezetsiak	19	% 12,75	47		78	1	126	% 12.09
Ez onartuak	38	% 25,50	115	21	83	3	222	% 21.31
Atzera egiteak	7	% 4,70	45		8		53	% 5.09
Artxibatuak	0	% 0,00	7		8		15	% 1.44
Bideratuak	0	% 0,00		4		1	5	% 0.48
	149	% 100	592	26	413	13	1042	% 100

Erreklamatzailen tipologia eta erabilitako interakzio-kanala.

Atal hau aztertu aurretik, berriz ere kontuan hartu behar da, sarreran aipatu den bezala, 2025eko ekitaldia ezohikoa izan dela. 2025. urtean, **434 erreklamazio jaso dira**, aurreko ekitaldian baino % 274 gehiago. Horietatik **294 irailetik abendura bitartean jaso dira, eta 195 bi subjektu espezifikoekin egin dituzte.**

Hori dela eta, beheko taulan, bi errenkada daude 2025. urterako, bata 434 espedienteekin (2025 guztira) eta bestea aipatutako 195 espedienteak kenduta, batez ere ez dadin desitxuratu eskaeren izaera, gizonak, emakumeek edo pertsona juridikoek aurkeztu dituzten jakiteko.

2016-2024 aldian ikusi zen erreklamazioek gora egiten zutela batzordea sortu zenetik. 2025ean ere, joera bera egon da, eta beste mugarri bat ezarri da, 158 erreklamazioekin, nahiz eta 2023an erregistratutako kopuruaren antzekoa izan.

Oro har, gizonak izan dira, hasieratik bertatik, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordean erreklamazio gehien jarri dituztenak. Lehenengo urteetan, nabarmen izan ziren gehiengoa (2019an ia % 90), eta 2025ean ere gizonak ipini dituzte erreklamazioen % 48,12.

URTEA	Generoa						
	Guztira	Gizona	%	Emakumea	%	Pertsona juridikoa	%
2024	158	74	% 46,84	27	% 17,09	57	% 36,08
2025 guztira	434	115	% 26,50	158	% 36,41	161	% 37,10
2025 iragazita	239	115	% 48,12	52	% 21,76	72	% 30,13
2016-2025 guztira	1327	643	% 48,46	296	% 22,31	388	% 29,24
2016-2025 iragazita	1132	643	% 56,80	190	% 16,78	299	% 26,41

Bestalde, **interakzio-kanal erabilienean elektronikoa izan da, eta hazten jarraitzen du: 2025ean, interakzioen % 99 baino gehiago egin dira hala; postaz, berriz, % 0,23 eta aurrez aurre % 0.**

URTEA	Interakzio-kanala						
	Guztira	Posta	%	Aurrez aurrekoa	%	Elektronikoa	%
2024	158	1	% 0,63		% 0,00	157	% 99,37
2025 guztira	434	1	% 0,23		% 0,00	433	% 99,77
2025 iragazita	240	1	% 0,42		% 0,00	239	% 99,58
2016-2025 guztira	1327	82	% 6,18	15	% 1,13	1230	% 92,69
2016-2025 iragazita	1133	82	% 7,24	15	% 1,32	1036	% 91,44

Gardentasunaren ataria

Batzordeak [gardentasunaren atari bat](#) du, eta hor argitaratzen du jarduketa publikoaren funtzionamenduari eta kontrolarekin erlazionatuta dagoen jardueraren gardentasuna bermatzeko esanguratsua den informazioa. Informazio horri 19/2013 Legearen 15. artikuluan jasotako mugak aplikatzen zaizkio, baita datu pertsonalen babesetik eratorritakoak ere. Antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko informazioa argitaratzen du, baita garrantzi juridikoa, ekonomikoa, aurrekontuetakoa eta estatistikoa duen informazioa ere. Legeak 3 hilabeteko epea ezartzen du erreklamazioak ebazteko; epe hori igarota, ezetsizat joko da.

Aipatu behar da Batzordeak, hura arautzen duen dekretuari jarraikiz, bi batzordekide dituela espedienteak izapidetzeko. Bi batzordekide horiek arduraldi eskusiborik gabeko funtzionarioak dira, eta beren lanpostuari dagozkion bestelako zereginekin txandakatzen dituzte funtzio horiek. Aurten, lehen aldiz, **erabat aldatu dira batzordekideak, eta aldaketa partzial batzuk ere egon dira, eta, gainera, % 274 igo dira jasotako erreklamazioak.**

Hori guztia dela eta, aurrekaririk gabeko egoera eragin da batzordea sortu zenetik. 2025eko ekitaldian, **78,9 eguneko izan da erantzuteko batez besteko denbora, eta hori bat dator legeak ezarritako parametroekin.**



Txosten hau argitaratzen den egunean, ebazpen guztiak Gardena atarian argitaratzen ari dira, anonimizatuta eta bi hizkuntzatan.

Azken oharra.

Trantsizio-prozesu horien ondoren, finkatuta dago batzordea osatzen duen batzordekide-taldea, eta 2026ko urtarriletik aurrera normaltasunez garatzen da jarduerak, batzorde erabat funtzionala sortuta.

2025eko irailtik abendura bitartean jasotako espedienteek eragin nabarmena izan dute 2025eko jardueran, eta, beraz, baita horietatik ateratako estatistiketan ere. Kontuan hartuta horietako batzuk 2026an ebazteko geratzen direla, datorren ekitaldian ere jarduerak eta estatistikak apur bat desitxuratuta eskainiko direla aurreikusten da. Txosten hau egin den egunean, bi pertsona espezifikoek egindako 195 espedienteak (106 + 89) batzordearen jarduerak normalizatuaren arabera ebatzi dira.

Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen jarduerak bertan behera geratuko da Gardena – Gardentasunaren Euskal Agintaritzak sortzen eta haren jarduerak hasten den unean, hau da, Gardentasunaren Legea onartu ondoren.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko martxoa.